

IKASTETXEA	Lekaroz BHI		
IZENBURUA	Gereziak	MAILA	2. DBH
IRAKASLEA	Josu Cabodevilla eta Jon Gorrotxategi	IKASGAIA	Euskara

## **EUSKARA (10)**

### GEREZIAK

Jaki gozo guztiek beren aberri txiki eta partikularra dute gure lurralde guztian barrena. Piperrak Gernikan, Babarrunak Tolosan, Barraskiloak Gasteizen, Txakolina Getarian edota Esparragoek Nafarroako Erriberan aurkitzen dute sorterririk biribil eta maitatuena. Modu berean, gereziek, **girizi** edo **keixek**, Lapurdiko Itsasun dute aberririk handiena eta bertan ospatzen da urtero maiatzaren 15ean hasi eta ekainaren 15era bitartean Gerezien Azoka. Hantxe bildu, saldu eta dastatzen dira azken urteetako haizete handiek botatzen ez dituzten loreetatik sortutako **Xapatak**, **Peloak** eta **Beltzak** izeneko barietateak.




Hala ere, ez pentsa Itsasu denik Euskal Herriko gerezi leku bakarra, badira oso ezagunak diren beste hainbat leku: Milagro, Etxauri, Barakaldo,... Bada, beraz, non aukeratu.

Gereziaren historia ez da baina Euskal Herrian hasi eta amaitzen. Aran, muxika, almendra eta basaranaren lehengusu diren fruitu hauek *Prunus* generokoak dira eta gaur egun landatzen diren barietate guztiak, Asia zaharreko mendebaldean dute jatorria, hegaztien zein gizakien migrazioengatik Europara eta mundu osora hedatu badira ere. Gerezia izena oster, Irango *kirash* izenetik etorritako *kerasos* hitz grekotik dator. Ez gerizpe eta ez itzalpe, beraz.

Plinio zaharrak, lehenengo mendean zortzi gerezi mota aipatzen zituen, baina gaur egunean, gozo eta garratzen artean. 1.200 klase baino gehiago ezagutzen da. Gehienak C eta A bitaminetan aberatsak dira, gluzido eta potasioan, berriz, apartak. Edonorentzat dira gomendagarri %80 urez eta %15 azukrez osaturik baitaude eta, gainera, energia askorik ematen ez dutenez, ez dute batere gizentzen. Konparazio baterako, gereziz bakarrik elikatu behar bagenu, egunean 7 kilo jan beharko genuke gure behar kalorikoak asetzeko. Osasun aldetik, gainera, onak dira besteak beste: odoleko kolesterol maila jaisteko; odola garbitzeko; hanturari

eta erreumari aurre egiteko; zenbait gaixotasunetatik babesteko, minbizia esate baterako;... baina oso diuretikoak ere badira.



Bestalde, gerezia zuhaitzetik sortu bezala jaten da, batez ere; baina asko dira gereziekin presta daitezkeen jakiak: marmelada, jalea, konpota, sorbetea, izozkia, mazedonia, gingak, pastiza, Kirsch-a (gerezien hezurrarekin eginiko likorea)... Bitxikeria gisa, ez ahantzi gerezien txortenekin eginiko infusioak sexurako gogoak suspertzen omen dituela.

Horrenbestez, lasai jan nahi adina gerezi, baina hori bai, badaezpada ere, hona hemen aholku pare bat; bata, jan aurretik uretan pasa eta, bigarrena, gereziak jan eta gero ez urik edan, korrika eta presaka komunera joan nahi ez baduzu, behintzat.

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Hasier Etxeberria, Julian Bereziartua eta Luis Irizar
IZENBURUA	Erabateko sukaldea
ARGITALETXEA/Webgunea	Tarttalo
URTEA	1998
ORRIALDEA (K)	105.orr.
ISBN	84-8091-481-5
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Azalpena
ERABILERA	Hezkuntzakoa

JARDUERAK
<b>1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU</b>
<b>1.1 Galdera</b>
Lapurdiko Itsasun urtero ospatzen da Gerezi Azoka, baina noiz?
a) Udaberriaren hasieran.
b) Udaberriaren erdialdera.
c) Udaberriaren amaieran.
d) Udaren hasieran.
<b>1.1 Erantzuna</b>
c) Udaberriaren amaieran, maiatzaren 15etik ekainaren 15era bitartean hain zuzen.
<b>1.2 Galdera</b>
Euskal Herriko zein txoko dira ezagunak gereziei esker?
<b>1.2 Erantzuna</b>
Lapurdiko Itsasu, baina baita Milagro, Etxauri eta Barakaldo ere.

1.2 OHARRAK
<b>2. ULERMEN OROKORRA</b>
<b>2.1 Galdera</b>
Laburbildu paragrafo bakoitzeko ideia nagusia.
<b>2.1 Erantzuna</b>
<p>1.- Lapurdiko Itsasu gerezi lekua da eta horregatik, gerezia asko estimatzen dutenez, urtero udaberri amaieran Gerezi Azoka antolatzen dute.</p> <p>2.- Itsasu ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat leku ere ezagunak dira gereziei esker.</p> <p>3.- Gerezia berez Asia zaharreko mendebaldean du bere jatorria, eta hegazti zein gizakien migrazioari esker iritsi zen gureganaino.</p> <p>4.- Hasiera batean 8 gerezi mota zeuden, baina egun 1.200 klase baino gehiago daude. Osasunerako guztiak dira onak, besteak beste odola garbitzen edota hainbat gaixotasun saihesten laguntzen baitute.</p> <p>5.- Gereziarekin jaki mota asko presta daitezke, batez ere, azken-burukoak.</p> <p>6.- Gereziek pixagale handia ematen dute, batez ere ura edaten badugu.</p>
<b>2.1 OHARRAK</b>
<p>Ariketa honen erantzuna neurri handi batean irekia da, erran nahi baitugu, paragrafoetako ideia nagusiak modu askotara formula daitezkeela.</p> <p>Guk atera ditugun ideia nagusiek orientazio gisa bertzerik ez dute balio.</p>
<b>2.2 Galdera</b>
Testuaren 8-10 lerroko laburpena egin
<b>2.2 Erantzuna</b>
<p>Gerezia fruitu preziatua da Euskal Herriko hainbat herritan, besteak beste, Itsasun, Milagron, Etxaurin edota Barakaldon. Jatorriz, dena den, ez da bertako fruitua eta hegazti zein gizakien migrazioari esker iritsi zen gureganaino Asia zaharretik.</p> <p>Hasiera batean gerezi mota gutxi batzuk besterik ez zeuden, baina gaur egun 1.200etik gora gerezi mota daude. Edozein modutan guztiak jaten ahal dira inongo kezkarik gabe, oso onak baitira gure osasunerako. Kontuan hartu behar dugu batez ere urez osaturik daudela eta, beraz, ez dutela gizentzen. Hainbat bitaminetan ere aberatsak dira eta horri esker odola garbitzen edota minbiziari aurre egiten laguntzen dute.</p> <p>Hala ere, jakin behar dugu oso diuretikoak direla eta, hortaz, asko janez gero, behin eta berriz joan beharko dugula komunera.</p>

Bukatzeko esan gerezia zuhaitzetik sortu bezala jaten ahal dugula, baina hainbat jaki goxo prestatzeko ere balio duela; azken-burukoak batez ere.

## 2.2 OHARRAK

**Ariketa honetan, zalantzarik gabe, “zenbat ikasle, hainbat laburpen”; baina detaileak gorabehera nahiko antzekoak izango dira laburpen gehienak. Edozein modutan, garrantzitsua da aurreko ariketan atera dituzten ideia nagusiak abiapuntutzat hartzea.**

**Hemen paratu dugun laburpena, adibide bat bertzerik ez da.**

## 3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK

### 3.1 Galdera

Ba al dute zerikusirik euskarazko “gerezi” hitzak eta gaztelaniazko “cereza” hitzak? Zure erantzuna arrazoitu.

### 3.1 Erantzuna

Bai, biak hitz berberetik datozelako. Gainera, bi hitzen egungo formari begiratuta, badute nolabaiteko antza.

## 3.1 OHARRAK

### 3.2 Galdera

Zer erran nahi du “gereziak oso diuretikoak dira” baieztapenak?

- a) C eta A bitaminetan aberatsak direla.
- b) Ur asko eta azukre gutxi dutela.
- c) Gure odola garbitzen laguntzen dutela.
- d) Postre gozoak egiteko ezin aproposagoak direla.
- e) Gorputzeko likidoak ateratzen laguntzen duela.

### 3.2 Erantzuna

E ) Gorputzeko likidoak ateratzen laguntzen duela.

## 3.2 OHARRAK

## 4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA

### 4.1 Galdera

Garbi dago gereziak osasunerako onak direla. Zergatik ez ditugu, orduan, urte osoan zehar jaten?

### 4.1 Erantzuna

Gerezia sasoiko fruitua delako. Gutxi gorabehera udaberri amaieratik ekain amaiera bitartera soilik jaten ahal dugu. Gainera, testuan dioen bezala, Gerezi Azoka garai horretan egiten da. Bertako gereziekin beste garai batean egitea ezinezkoa izanen litzateke, ez eta bertako gereziak urte osoan zehar jatea ere.

## 4.1 OHARRAK

## 4.2 Galdera

Testu honetan gerezia eta gereziaren familiako beste fruitu batzuk izendatzeko Prunus hitza erabiltzen da:

- a) Gereziaren jatorrizko izena delako.
- b) Gerezia antzeko beste fruitu horietatik bereizi nahi duelako.
- c) Asia zaharrean fruitu horiek betitik horrela izendatu direlako.
- d) Gereziaren familiari dagokion izen zientifikoa erabili duelako.

## 4.2 Erantzuna

- d) Gereziaren familiari dagokion izen zientifikoa erabili duelako.

Zientzia munduan, landareak, animaliak eta abar izendatzeko, oro har, latinetik hartutako izendapena erabiltzen da.

## 4.2 OHARRAK

# 5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA

## 5.1 Galdera

Testuko hiru paragrafo antolatzaile bidez hasten dira:

2. paragrafoa → “Hala ere”, 5. paragrafoa → “Bestalde” eta 6. paragrafoa → “Horrenbestez”

Argitu antolatzaile horien esanahia testu barruan eta proposatu kasu bakoitzerako balio bereko beste antolatzailearen bat.

## 5.1 Erantzuna

### “Hala ere” (2. paragrafoa)

Aurreko paragrafoan adierazi duen ideia bat osatu eta argitzeko erabiltzen du, hau da, Itsasuz gainera badirela Euskal Herrian bertze hainbat gerezi leku ospetsu.

...dena den, hala eta guztiz ere, baina, nolana ere...

### “Bestalde” (5. paragrafoa)

Testuan ordura arte gereziei buruz aipatu ez duen informazio berria (osagarria) emateko erabiltzen du.

...bestetik, halaber, orain artekoaz gainera, gainera, oraindik eta gehiago...

### “Horrenbestez” (azken paragrafoa)

Testuan zehar erran duen guztiari amaiera emateko eta, batez ere, ondorio gisa erabiltzen du.

...horrela; hortaz; hau guztia dela eta; argi dago, bada; esandakoa kontuan izanik...

## 5.1 OHARRAK

**Antolatzailea: Testua egituratzeko eta antolatzeko erabiltzen diren hitzak eta hitz multzoak.**

## 5.2 Galdera

5.2.a.- Gerezien testuak 6 paragrafo ditu guztira: lehenengo bi paragrafoak sarreratzat har ditzakegu eta azken paragrafoa ondorioztat. Zer da, ordea, 3., 4. eta 5. paragrafoetan batez ere ageri zaiguna? Egokiena aukeratu:

- a) Gereziari buruzko pasarte narratibo-historikoak.
- b) Gereziari buruzko deskripzio bat.
- c) Gerezien ezaugarriei buruzko iritzi bat.
- d) Gereziaren inguruko hainbat datu.

## 5.2 Erantzuna

5.2.a.- d) Gereziaren inguruko hainbat datu.

## 5.2 OHARRAK